LEMOATX TRAIL 2021
ARAUTEGIA

1-Aurkezpena

Lemoatx Trail 2021 azaroaren 21ean Lemoan (Bizkaia) egingo den mendi-lasterketa eta martxa bat da. Agirre Lehendakariaren kaleko 23. zenbakian (Eguskiza Meabe Ikastetxe Publikoa) izango ditu irteera eta helmuga.

2-Modalitateak eta kategoriak

Ekitaldiak lau modalitate ditu:

-*24 km lasterketa*. 2021eko Bizkaiko Mendi Lasterketa Txapelketa, maila absolutuan, emakumezkoetan eta gizonezkoetan (2000. urtera arte jaiotakoak). Bizkaiko txapelketatik kanpo, 2003ko azaroaren 21a baino lehen jaiotakoek parte hartu ahal izango dute (18 urte beteta, probaren egunean).

-*16 km lasterketa*. Bizkaiko 2021eko Mendi Lasterketen Txapelketa junior, emakumezko eta gizonezkoen mailan (2001, 2002 eta 2003 urteetan jaiotakoak). Bizkaiko txapelketatik kanpo, 2005eko azaroaren 21a baino lehen jaiotakoek parte hartu ahal izango dute (probaren egunean 16 urte beteta).

-*24 km martxa*. 2005eko azaroaren 21a baino lehen jaiotakoek parte hartu ahal izango dute (probaren egunean 16 urte beteta). 16 urtetik beherako guztiek (2005eko azaroaren 21aren ondoren jaiotakoek) heldu batekin joan beharko dute beti. Heldu horrek bere gain hartuko du, idatziz, dortsalen bilketan erakundeak emandako dokumentuan, zein adingabe hartzen dituen.

-*Lemoatx Txiki*. (Ikusi horri buruzko arautegiaren puntua).

3-Parte hartzeko inskripzioak eta kupoak

Izen-emate guztiak www.kronoak.com webgunean egingo dira, 2021eko irailaren 15eko 00:00etatik 2021eko azaroaren 15eko 23:59era arte.

Lau modalitateetako bakoitzak 200 laguneko gehienezko kupoa izango du; aipatutako gehieneko kupoa betetzen bada, izen-emateak itxi egingo dira. Ordainketa egin ondoren bakarrik baliozkotuko da inskripzioa.

Inola ere ez da itzuliko inskripzioagatik ordaindutako zenbatekoa; hala ere, kirolariaren poltsa jasotzeko eskubidea izango du.

2021eko urriaren 10eko 23:59ak arte izena ematen dutenek bakarrik izango dute bermatuta kamisetaren neurria.

4-Prezioak

	Federatuak	Ez federatuak
24 km lasterketa	20 €	25 €
16 km lasterketa	15 €	20 €
24 km martxa	10 €	10 €
Lemoatx Txiki	8 €	8 €

5-Lemoatx Txiki

Txikiei eta familiei zuzendutako mendi-ibilaldia, zati bat PR-BI 56 "Lemoatxa 1937" (8 km) delakotik igarotzen dena. 16 urtetik beherako guztiek (2015eko azaroaren 21era arte jaiotakoek) heldu batekin joan beharko dute beti. Heldu horrek idatziz adieraziko du, erakundeak dortsalen bilketan emandako dokumentuan, zein adingaberekin parte hartzen duen.

6-Irteera-ordutegiak

-24 km martxa. 08:00etan.
-24 km lasterketa. 09:15ean.
-16 km lasterketa. 10:30ean.
-Lemoatx Txiki. 11:00etan.

7-COVID prebentzioari buruzko antolaketa-neurriak.

Jarraian zehazten diren neurri hauek unean-unean indarrean dagoen araudiari egokituko zaizkio beti, eta aldaketa horiek bai ekitaldiaren sare sozialetan bai parte-hartzaile bakoitzari posta elektroniko bidez jakinarazita argitaratuko dira.

<u>Parte-hartzaile guztiek antolakuntzaren mezu elektroniko bat jasoko dute lasterketa egingo den astean bertan,</u> COVID araudiari, dortsalak biltzeari, eta abarri buruzko argibide zehatzekin.

-Eskolako barrutia itxita egongo da antolakuntzako kide ez den pertsona ororentzat (egiaztapen-zintzilikarioarekin egiaztatuko da) edo lasterketan parte hartzen duen pertsona ororentzat (dortsalarekin egiaztatuko da).

-Lasterketa bakoitzeko parte-hartzaileak proba hasi baino ordu erdi lehenagotik sartuko dira irteera-barrutira, antolakuntzako kideek gaitutako eta kontrolatutako pasabideetatik.
Parte-hartzaile guztiek eraman beharko dute maskara, eta ezin izango dute kendu lasterketa hasi ondoren barrutitik irten arte.

-Helmugan sartzean, eskola-barrutian, parte-hartzaileek maskara jantzi beharko dute, eta maskara jantzi beharko dute barrutiaren barruan dauden guztietan. Antolatzaileek barrutitik lehenbailehen irteteko eskatuko diete parte-hartzaileei.

-Ez da dutxa-zerbitzurik egongo.

- Amaieran erakundeak emandako edarien eta elikagaien anoa-postua egongo da.

8-Anoa-postuak

-Lasterketak eta martxak beregaintasunekoak izango dira; beraz, parte-hartzaile bakoitzak bertan hartuko dituen likidoa eta solidoa eraman beharko ditu. Antolatzaileek anoa-postuak izango dituzte, eta parte-hartzaileek likido-bidoia eraman beharko dute antolatzaileek bete dezaten. Anoa-postu horien kokapena eta osaera parte-hartzaile bakoitzari mezu elektroniko bidez bidaliko zaion informazioan zehaztuko dira.

Anoa-postuetan, antolatzaileek adierazitako lekuan jarri beharko dute maskara parte-hartzaileek, eta ezin izango dute kendu antolakuntzak adieraziko duen lekutik igaro arte.

-Amaieran erakundeak emandako edarien eta elikagaien anoa-postua egongo da.

9-Dortsalen banaketa

-Antolatzaileek horretarako prestatutako lekuan jasoko dira, proba bakoitza hasi baino ordubete lehenagotik, betiere antolakuntzak adierazitako lekutik sartuz eta emandako jarraibideak betez (ilarak, distantziak...).

-Ezinbestekoa izango da parte-hartzaile bakoitzaren NANa eta federatu-txartela aurkeztea.

10-Lehiaketa-epaimahaia

Organo aholku-emailea izango da, probak ekar ditzakeen erreklamazioei erantzuteko ardura izango duena, eta lasterketako dataren barruan erreklamazio bat aurkezten denean deituko da, 15:00ak arte.

Honako hauek osatuko dute:
-Probako epailea.
-Probako zuzendaria.
-BMFko ordezkaria

11-Parte-hartzaileen jokabide orokorra

Kirolariak antolakuntzak emandako dortsala eramatera behartuta daude. Proba osoan zehar elastikoan, ikusteko moduan eta aurreko aldean eraman beharko dute, eta ezin izango da tolestu edo ebaki.

Kirolari edo parte-hartzaile orok arriskuan dagoen edo istripua izan duen beste parte-hartzaile bati lagundu behar dio, eta berehala jakinarazi beharko dio kontrolik hurbilenari. Laguntzarik ez emateak probatik berehala kanporatzea ekarriko du.

Kirolari bakoitzaren betebeharra da hondakinak antolatzaileek adierazitako lekuetara eramatea.

Kirolariek, ibilbide osoan, une oro bete beharko dituzte antolakuntzako kideen jarraibideak, betiere lehiaketa-arautegia eta antolakuntzaz kanpoko arrazoiengatik antolakuntzak proba baino lehen edo proban zehar egin ditzakeen aldaketak errespetatuz.

Parte-hartzailea erretiratuz gero, antolakuntzaren kontrol batean egingo du, bertan abisua emanez eta dortsala entregatuz; erretiratzen den parte-hartzaileak bere gain hartuko du erantzukizun osoa, uzten duenetik.

Martxan parte hartzen dutenek txakur batekin egin ahal izango dituzte ibilaldiak, eta txakur hori lotuta egongo da beti. Lasterketetan ezin da txakurrarekin korrika egin.

12-Seinaleztapena eta pasabide-kontrolak

Ibilbidea behar bezala seinaleztatuta egongo da, antolatzaileek jarritako seinaleztapen-banderen, zinten eta gainerako elementuen bidez. Parte-hartzaileek markatutako ibilbidea jarraitu beharko dute, eta boluntarioen argibideei kasu egin beharko diete une oro; ibilbidetik ateratzen diren edo oharrak errespetatzen ez dituzten kirolariak lasterketatik kanporatu ahal izango dira, eta ekitaldiaren aseguruaren estalduratik kanpo geratuko dira.

Antolakuntzak ibilbideko punturen batean pasabidea kontrolatuko du; puntu horretatik igarotzen ez dena lasterketako sailkapenetik kanpo geratuko da.

Proba bakoitzean eten-ordutegi malguak ezarriko dira, soilik probaren ohiko garapenean eta erakundearen lanean eragina izango duten justifikatu gabeko atzerapenak saihesteko. Ordutegi horiek ekitaldiaren sare sozialetan argitaratuko dira, eta parte-hartzaile bakoitzari bidaliko zaion mezu elektronikoan jakinaraziko dira.

13-Proba eten edo baliogabetzea

Egoerak hala eskatzen badu, antolakuntzak proba eten ahal izango du ibilbideko puntu batean; kasu horretan, etete-puntuan edo, bestela, egindako azken kontrolean hartuko dira helmugako posizioak eta denbora. Helmugaraino kontrolik ez badago, helmugara iristeko denborak hartuko dira kontuan.

14-Mediku-zerbitzuak

Antolatzaileek anbulantzia bat izango dute helmugan eta lur orotako ibilgailu bat Belatxikieta inguruan, parte-hartzaileak artatzeko. Edozein parte-hartzailek

ezbeharren bat izanez gero, edozein boluntariori jakinarazi ahal izango dio, bere laguntza jasotzeko eta dagozkion zerbitzuei abisua emateko. Parte-hartzaile orok laguntza behar duen beste parte-hartzaile bat artatu beharko du.

15-Segurtasuna

Antolatzaileek martxan parte hartzen dutenei bateria duen telefono mugikorra eramateko gomendatzen diete, baita 112 telefonora deitzeko ere.

16-Lasterketa-zuzendaritza

Ganzabal Mendi Taldeak, ekitaldiaren antolatzailea den aldetik, erantzukizuna eta ahalmena du ekitaldiaren segurtasuna eta jardunbide egokia zaintzeko behar diren oharrak eta aldaketak egiteko edo bestelako neurriak abiarazteko.

17-Irudi-eskubideak

Antolatzaileek egindako argazkiak eta bideoak sare sozialetan argitaratzeko aukera izango dute parte-hartzaile guztiek.